

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar legebiltzar-taldeko bozeramaile **Aintzane Ezenarro Egurbidek**, indarrean den araudiaren babesean, osoko bilkuran erantzuteko “**300 laguntzeko formazio programari buruz**” hurrengo **interpelazioa** egiten dio **Gemma Zabaleta Enplegu eta gizarte gaietarako sailburuari**.

ZIOA

Enplegu eta Gizarte gaietarako sailburu Gemma Zabaletak, Eusko Legebiltzarreko Gizarte politika, Lan eta berdintasun Batzordearen aurrean egindako agerraldiak iragarri zuenez, enplegu formazio programa berri bat abian jartzeko asmoa dauka, 6 milioi euroko inbertsioarekin eta oinarritzko errenta jasotzen ari diren 300 herritarri arlo sozialean jarduteko enplegua emateko asmoa dauka.

Egitasmo hori aurreratu zuen arren, sailburuak ez zuen xehetasun gehiago eman planaren inguruan. Ez zuen argitu nola egingo duten 300 lagun horien aukeraketa, ezta zein izango den formazio plana, ez eta ze enplegutuan hasiko diren lanean.

Hori dela eta, Enplegu eta Gizarte gaietako sailburuari eskatzen diogu, interpelazio honen bitartez:

INTERPELAZIOA

- Nola egin asmo du plan hori? Ze trebakuntza emango zaie pertsona hauei, zehazki? Trebakuntza hori hezkuntza sailaren esku ala enplegu eta gizarte gaietarako sailaren esku izango da?
- Noiz ezagutu al izango dugu plan zehatza? Noizko aurreikusten duzue abian jartzea egitasmo hau?

Gasteizen, 2009ko uztailaren 7an

Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar legebiltzar-taldeko bozeramailea